



PRENTSA OHARRA: 2021.04.27

Literatura itzulpenetarako dirulaguntzak eskatzeko epea bihar zabalduko du Etxepare Euskal Institutuak

- Guztira, 64.000 euro bideratuko ditu, eta aurtengo lehen aldiz, edizio eta sustapen gastuak ere diruz lagunduko dira
- Halaber, euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko irabazi asmorik gabeko jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea irekiko da bihar

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdia gaur argitaratu eta gero, Etxepare Euskal Institutuak bihar, apirilak 28, zabalduko du literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak (2021) eskatzeko epea, **euskal autoreen lanak atzerriko hizkuntzetara itzul daitezen**. Eskerak aurkezteko **maiatzaren 27ra** bitarte zabalik izango dela, Institutuak ondorengo itzulpen-jarduerak lagunduko ditu diruz: Batetik, **jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-lanak edozein hizkuntzatarara itzultzea**. Eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako idazleek jatorriz **gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura-lanak euskara ez den beste edozein hizkuntzatarara itzultzea**. Hizkuntza jakin bateko lehen itzulpenak baino ez dira lagunduko bi kasuetan, eta diruz lagundutako itzulpenak argitaratzeko gehieneko epea 2022ko abenduaren 30a izango da.

Bestalde, aurtengo deialdian bada berritasun bat, izan ere, aipatu itzulpen gastuez gain, argitaletxeen kasuan **edizio eta sustapen gastuak** ere diruz lagunduko dira. Deialdi honetarako gehienezko zenbatekoa hirurogeita lau mila (64.000) eurokoa

izango da, honela banatuta: berrogeita lau mila (44.000) euro itzulpen lanetarako eta hoge mila (20.000) euro edizio eta sustapen lanetarako.

Deialdira aurkeztu nahi izanez gero jarraitu beharreko tramitazioa hemen topatu daiteke.

28 itzulpen iaz

COVID-19aren **pandemiak** kultura gogor jo badu ere, sormen literarioa gelditu ez eta pixkanaka ari dira argitara ematen hainbeste lanen fruituak. Iaz, orotara **28 euskal** obraren itzulpenak bideratzeko dirulaguntza eman zuen Institutuak, alegia, **2019an argitaratutakoaren bikoitza**.

Tartean, Etxepare Euskal Institutuak diruz lagundutako euskal liburuen itzulpenak, plazaratzen hasiak direnak. Bost argitaratu dituzte, eta seigarrena heltzear da.

Poesia, eleberria, ipuinak, saiakera... Askotarikoak dira euskaratik itzuli diren edukiak. Adibidez, orain arte kaleratutako itzulpenen artean daude **Beatriz Chiviteren** 'Hirietan' poesia liburu eleaniztuna, gaztelaniazko eta galegozko Antonio Rodríguez Lópezen itzulpenekin; **Mikel Valverderen** 'Nika Vekilanka', 'Rita gigante' ipuinaren eslovenierazko bertsioa, **Barbara Pregelj**-ek itzulita; **Yolanda Arrieta** Malaxetxebarriaren 'Atãria. Una puerta a la utopía' eleberriaren gaztelaniazko bertsioa, idazleak berak itzuli duena; eta **Joxemari Iturrালের** 'Armoniskuja' ('Perlak, kolpeak, musuak eta traizioak' euskaraz), Lurra Editions-ek finlandieraz eman duena argitara.

Kirmen Uriberen '19 segundo' poesia liburua ere itzuli du gaztelaniara Gerardo Markuleta Gutierrezek. Gainera, Katixa Agirreren 'Atertu arte itxaron' eleberria alemanieraz plazaratuko du laster Edition Converso etxeak. Bidean dauden gainerako liburuen zerrenda osatzen dute, besteak beste, Bernardo Atxagaren 'Etxeak eta hilobiak', **Ibrahim Balde eta Amets Arzallusen** 'Miñan', **Katixa Agirreren** 'Amek ez dute', euskal poesiagintzaren inguruko bi antologia liburu, edota **Iban**

Zalduaren 'Panfletario. Manifiestos, decálogos y otros artefactos a favor (y en contra) de la literatura', idazleak berak euskaratik itzulia.

Bere hastapenetik, Etxepare Euskal Institutuaren lan-ildo nagusietako bat euskal literatura nazioartean sustatzea da. Hori dela eta, urtero, euskal autoreen lanak atzerriko hizkuntzetara itzul daitezen dirulaguntzak eskaintzen ditu, baita itzulpengintza bultzatzen duten beste hainbat jarduera kudeatu ere; esaterako, Etxepare – LABORAL Kutxa Itzulpen saria.

Jarduera ez profesionalak garatzeko dirulaguntzak

Halaber, Etxepare Euskal Institutuak bihar zabalduko du epea euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko jarduera ez profesionalak garatzeko dirulaguntzak (2021) eskatzeko. Maiatzaren 27an amaituko den eta 25.000 euroko zuzkidura duen deialdi honen helburua da irabazi asmorik gabeko jarduera eta proiektuak euskararen eremu geografikotik kanpo burutzeko dirulaguntzak arautzen dituen deialdia argitaratzea. Ebazpen honen babesean aurkeztuko diren jarduerak 2021ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean garatu beharko dira.

Deialdira aurkeztu nahi izanez gero jarraitu beharreko tramitazioa Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikari topa daiteke, [hemen](#).

Info+

Beñat Doxandabaratx
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus